

Ipuintxua

**LURPEKO INPERNUA
ANTXIÑA BETEZAN**

TXINDURRETA-ko errira beinbe ez zan eldu onelako izpar bildugarrik. Orregaitik egun aretan, txindur gustek geratu zean geldik subertuta, gertu jakiteko alzan onduen, zer dakarren astereko IZPAR BARRI-an “ANTXIÑA BETEZALA LURPEKO INPERNUA ta ORDUTIK INPERNUA LURREAN DAGOLA”.

Ori, bakarrik ekiteko. Danak nai ebein jakitia zer geiago etorren azkenengo astereko IZPARBARRI-an. Onen ondoren, jabeituzean IKASTETXE NAGUSIKO Irakasle TXINLUR jaunak, beren eguneko itzaldian agerkude a. Ta, geiago ondiok: “INPERNUA ZABALDU ZALA LURREAN, ta EMEN DAGOZELA ANTXIÑAKO TXERREN GUSTEAK –arrak ta emiak- ikusteziniskoak, jantziten dabeñak prakak edo gonak, edo biluzik euenak- euren danetako arraipaigaluakgas, labeakiñ,

segak, sardeak, lepayetz, aizkorak, beidak, ta daneko zurikeriagoakiñ”. Geiago ondiok: Txinlur Irakasle Aundi jaunak, ezan ebela: “...egunaz ta gabaz dagozela txerrenak inguru gustietan, euren bearrian: dakuen min koipetsu labanaz, ibillten egunaz ta gabeaz, zarri dagozela zartuta gorputzetan, jatekoan, edadietan, gauz gustietan, pitarretan, diruetan, danetako egiñetan, oldostuetan, eruaten daneiri nai ebeñera, baita-be ezagututen danen gogomenak, egiten danetako zirikaldiak txerrenkeri gustekak...”. “Txerrenen lenengo bearra da – ezan eben TXINLUR irakasle jaunak:”..kentzeia latsatasuna, keskatasuna gasteairi; urte geiago dakuenairi ta mandolo dagonari”. Azakenengo galdari, erantsun ieben: “ Ez dago urterik ez jauziteko txerrenen atzamarretan,... ...iruretagoamar urtegorakoak, geinetan ez dabe billatuten, bañe ez orregaitik –izan lezke izan lezkena- iñor dago guztiz aske ez jauziteko sareak artean...”. Ta izpar-idazleak, itaun eutzanean

Txinlur Jaunari: Jaun, ¿Beorreri be zirikatu eutzo baten-baten Txerrenak?., Ta Txinlur jaunak erantsun eben: “Bai, bai, baten baño geiagotan; ¿ez dot ezan txerrenak dagozela danen billean—euren bearrean? – oregaitik egon beargara beti atzarri---.

Orrelako ikaragarri izparrakiñ, TXINDURRETA errikoak ausein gustiz larrituta. “¿Inpernuan gauzela?” – itaundutebein batsuk. Beste batsuk:

“¿Txerrena zartu lezkela nere gorputzean?” – itaunebein beste batsuk. Ta, orrelakoak ta beste itz ta ezanak entsuten zian TXINDURRETA-ko leku gustietan.

Baña izpar ori ez zan izango bakarrik geratuta ipiñi ebenak, bildurtuta TXINDURRETA errikoairi. Beste abeizkizunkez katsutugarriak eukiko eben txindurreairi larrituta, kezkatuteko zergaitik: AZTEREKO IZPARBARRI-an akitenzan egiten galdera onegaz: ¿ZER EGIÑ? Ta irakurtenzan: “Txindurren arerioak asko baño larrei dea, leku gustietan. Gu, danok ¿zelan ez gara

egonko larrituta?. Egunero iltendabei gure anaiari gure bearrian gauzenean. Geinetan zapalduta. Gure arerioak dea zārri, lau ankakoak, bi bernakoak, lurpekoak, txirrinkak ta abar.

“Egia ezateko: gure areiroak be, izanez ainbeste ludi guztean, iltendia euretan; zarri, ezan alaz: Baikotzak dakolako beren zuzenpidea besteairi kentzeko aurretik.

“Ikusten danez, geienak aztu dabe, Asisko Aita Prantziskok ezaten ebena: “¡Danok anaiak gara!””. Baña, ikusten danez, geienertzat geratuten da esekita galdera au: ¿Zer egiñ?.

Izen-buru orregaz aztereko IZPARBARRI-en Txinitz argital-tzalleak, idaztendago: “Ludia, ekin zanetik, gu, TXINDURRAK, gara lenengoarte-koak. Lurra eginzanetik, lenengo artean gauz gu. Ez dogu aztu bear garala lenengo artekoak, Ta lurrean izan dean kataklisak-arteaitik urten dogula garan lez!. Guk, TXINDURRAK, dakogu Lurreko adesti zarrena (1). Beti-betitik izan gara: Langilleak, sonakariak, leniskueak,

arduradunak, ta orretan gauz jarraituteko: Gazen lez.
¡Txindurrak!".

**(1) izpar orregas, sapaburoak, zigariak, kausubak ta
abar, geratuzian jabo zabalik!**

ONTZATEGITXU
Lima. Perú.

**Ipuin au dago idaztita BIZKAI-ko antxiñako
euzkerean.**